



■ XIV. SAGAR UZTA JAIA

Aurtengo berrikuntzak: mendi buelta familiar eta erronka

Sagar Uzta jaia ospatuko da bihartik igandera. Egun hauetan zehar, hainbat ekintza antolatu dira: pintxo potea, kata gidatua, mendi buelta, erronka, sagar tarta eta argazki lehiaketak...

HAMABOSGARREN urtez, Sagar Uzta jaia antolatu du Sagardoetxeak. Bihar hasiko da eta igandera bitarte hainbat ekintza izango dira. Eta baita bi berrikuntza ere: mendi buelta familiar eta Sagardo Bide erronka. Egun nagusia, igandea izango da.

Mendi buelta, larunbatean
Sagar motak ezagutzuz izeneko mendi buelta antolatu dute larunbatean. Familiar egiteko izango da, haur eta helduak batera. Josu Osarekin, Sagardo Bidean zehar dauden sagastietako sagar barietateak ezagutu eta probatuko dituzte. Parte hartzeko, izena eman behar da.

Erronka, igandean
Sagardobide erronka igande goizean izango da. Bi neska eta bi mutilez osatutako 6 taldek (Gurutza, Alorrenea, Petritegi, Ze-

laia, Astarbe, Zapiain), Sagardo bidea egingo dute erreleboka (ibilbideak, 5-6 km). 4 buelta egingo dituzte denera: mutilak bizikletan, neskek korrika, neskek bizikletan eta mutilak korrika.

Ikustera eta animatzera gerturatzeko dei egin dute antolatzaileek eta Santiomendiko igoera, ikusteko polita izango dela azaldu dute. Ibilbidea: Foru plaza (udaletxea), Plaza etxe, Santiomendi, Ermaña, Kaxkare, Artola eta Foru plaza.

Zenbat pisatzen du zakuak?
AEK euskaltegiak postua jarriko du igande goizean, Foru plazan. Bertan, Sagar zaku lehiaketa egingo dute, hau da, sagarrez betetako zaku baten pisua asmatzen duenak saria izango du. Horrez gain, ikasturte berrirako informazioa egongo da, eta sagardoa eta gazta. ■

EGITARAU

Bihar
19:00-21:00 Pintxo-potea tabernetan. Sagarren eratorriekin egindako pintxoak emango dira.

Ostirala
19:00 Euskal Herriko sagarren kata gidatua* Astigarragako Roxario Jatetxean.

Larunbata
09:30 "Sagar motak ezagutzuz", Santiomendiko Sagardo Bidean mendi buelta familiar*.

Igandea
SAGARRAREN JAIA Foru plazan.
09:00 I. Sagardobide Erronkaren irteera. Santiomendiko sagardotegien arteko errelebo proba.
10:30-12:00 "Sagardogintza gure baserrietan" erakusketa frontoian.
10:30-12:00 Sagar tarta lehiaketarako tartak entregatzea frontoian*.
10:30-12:00 VII. Sagar Uzta Argazki Rally Digitalean

izen-emateak frontoian*.

11:00-13:00 Gazta dastaketa gidatua*.

11:00-13:30 Haurrentzako tailerrak eta jolasak.

11:00-14:00 Sagarraren azoka:
- Sagarren erakusketa, dastaketa eta salmenta.

- Sagardo dastaketa.
- Saski, txertaketa... erakustaldiak.
- Herriko baserriarren produktuen salmenta.

- Muztio dastaketa herrian zehar trikitalariekin.

11:00 2014 uztako lehen muztioaren elaborazioa.

Sagar biltzea, jotzea eta zanpatzea.

12:30 Sagar dantza eta kirikoketa.

13:00 Txalaparta eta urteko lehen muztioaren dastaketa.

13:30 Haurrentzako sagargintza proba.

14:00 Sari banaketa.

14:30 Herri bazkaria Gure Izarra elkartean.

* Izen-emateak: 943 550 575 / info@sagardoarenlurraldea.com

■ ERAKUSKETAK

Bi erakusketa, kultur etxean

Hilabete honetan, bi erakusketa jarri dituzte ikusgai, kultur etxean. Alde batetik, Sagardoetxeak antolatutako erakusketa dago: *Sagardogintza gure baserrietan*. Ordu-egia: astelehenean larunbatera, 11:00-13:30 eta 16:00-19:30. Igandean, frontoian egongo da. Bestetik, aurreko ikasturtean argazkilaritza ikasi zutenen argazkiak daude. Ordu-egia: 09:00-13:00 eta 15:00-20:00. ■

■ GIMNASIA ERRITMIKOA

Izena emateko aukera

Gimnasia erritmikoa emango du Tximeletak ikasturte honetan eta izena emateko aukera dago. Urriaren 1ean hasiko dira klaseak. Astelehen eta asteazkenetan izango dira (17:00-18:00) Kiroldegian. Izena emateko eta informazio gehiagorako: 943116342 edo info@grupotximeletataldea.com. ■

■ GALTZAUR

Gabonetako loteria, salgai

Galtzaurrek astelehenean (irailak 29) jarriko du salgai Gabonetako loteria, bazkide guztientzako. Aurtun, dezimozko izango dira, eta ez, partizipazioak. Erosteke azken eguna: abenduak 2. ■

■ OBRA ETA ZERBITZUAK

Batzarra, gaur

Obra eta zerbitzuen batzordea bilduko da gaur, 18:00etan, udaletxeko batzar gelan. Astigarragako larrialdi planaz eta eskolako, kiroldegiko eta frontoiko obretaz ariko dira. ■

■ TXISTULARIAK

Astigarragako txistulariak, Iruñan

San Fermin Txikitoak ospatuko dituzte asteburuan Iruñan eta bertara gonbidatu dituzte Astigarragako txistulariak. Txirriskla taldekoak eta Musika Eskola-koak izango dira bertan, larunbatean. Bi danborrero ere bai. Apirilean, Astigarragan izan ziren Iruñako txistulariak eta orain, haiek luzatu dute gonbitea. ■

■ EPAIKETAK

Kontzentrazioa gaur, Zuaznabar eta Fernandezek epaiketak salatzen

Zuaznabarren aurkako epaiketa astelehenean hasi zen, beste 27 gazterekin batera. Gaur deklaratu du. Fernandezek epaiketa gaur izango da. Kontzentrazioa, 20:00etan J.B. plazan.

ASTELEHENEAN hasi zen 28 gazteren aurkako epaiketa Espainiako Auzitegi Nazionalan, Segiko kide izatea leporatuta. Tartean da Julen Zuaznabar astigartarra. Gaur deklaratu du berak. Bestalde, Breogan Fernandezek aurkako epaiketa izango da gaur, Bilboko epaitegian. Iazko Ondarruko herri harresian, ertzain bati eraso izana leporatuta epaituko dute.

Epaiketa politikoak bertan behera uzteko eskatuz, kontzentrazioa eta asanblada informatiboa deitu dituzte gaur Joseba Barandiaran plazan, 20:00etan. ■



Astelehenean ere, kontzentrazioa egin zuten hainbat herritarrek.



TELEFONOAK ■ Taxiak: 943 55 52 77 ■ Udaltzaingoa: 092 ■ IDYA: 943 46 46 22 (Hernani)
Autobusak: Areizaga - 943 45 27 08 ■ Anbulatorioa: 943 33 56 44
FARMAZIAK Egunez: ■ Asteazkena **Echeveste** Elkano 9, Hernani - 943 552087 ■ Osteguna **Chucila** Kardaberaz 48, Hernani - 943 551793 ■ Ostirala **Castilla** Urbieta 7, Hernani - 943 552941 ■ Larunbata **Castilla** Urbieta 7, Hernani - 943 552941
IGANDEA Castilla Urbieta 7, Hernani - 943 552941 ■ Astelehena **Chucila** Kardaberaz 48, Hernani - 943 551793
ASTEARTEA Aldabe Perkaiztegi 8 (Antziola), Hernani - 943 336022 **Gauz: Aizpuru** Latsunbeberri 1, Hernani - 943 336077

EGURALDIA



GAUR Goiz partean, lainotuta egongo da, baina arratsaldetik aurrera, garbitzera egingo du. Iparraldeko haizea ibiliko da eta fresko egingo du. Min.14° / Max.19°.



BIHAR Goizean laino batzuk izango diren arren, pixkanaka desegin eta giro eguzkitsua izango dugu. Tenperatura freskoarekin jarraituko dugu, baina gorako bideari helduko dio.

(euskalmet)

■ KIZKIA TALDEA

Gaur erabakiko da nongoa den sagardorik onena

Kizkiaren sagardo lehiaketako finala izango da gaur, Gure Izarra elkartearen, 14:00etatik aurrera. 20 sagardotatik, 6k lortu dute pasea.

URTERO bezala, sagardo lehiaketa antolatu du Kizkia taldeak eta gaur izango da finala. Gaur erabakiko da Gipuzkoako 20 sagardotegititik, zeinek daukan sagardo onena. Parte hartzaile guztien

artean, seik bakarrik lortu dute finalera pasatzea. Gaur jakingo da horiek ere zeintzuk diren. Gure Izarra elkartearen izango da, 14:00etatik aurrera. Iaz, Aiako Izeta sagardotegiak irabazi zuen. Astiga-

rragako Petritegi eta Lizeaga izan ziren hurrengo onenak. Aurten ere parte hartu dute, eta baita herriko beste bost sagardotegitik ere: Alorrenea, Larrarte, Irigoien, Rezola eta Oiarbide. ■

■ MUGIKORTASUN ASTEA

Bizikleta, mugitzeko beste aukera bat

Mugikortasun Astea astelehenean bukatu zen Astigarragan, eta aste osoan zehar, mugitzeko beste eredu edo alternatibak badirela agerian geratu da. Larunbatean, bizikleta martxa eta ginkana egin ziren eta gaztetxo eta heldu ugari atera ziren kalera, bizikletak hartuta. ■



Bizikleta martxa eta ginkana izan ziren larunbatean. Argazkiak, interneten.



Jolasak, solasaldiak eta merienda egin zituzten. Argazkiak, interneten.

■ MINTZOMERIENDA

Arratsalde pasa ederra, euskera indartzuz

Euskeraren kale erabileraren datuak ikusita (%30,4), besteak beste, Astigarragako euskalgintza taldeak hainbat ekimen aurreikusi ditu aurten, euskera indartzeko. Ostiralean, mintzomerienda antolatu zuten AEKK eta Xaguxarrek. Giro ederrean, jolasak, solasaldiak eta merienda izan ziren. ■

■ HARITUZ

Gaur eta bihar, informatika saioak

Harituz elkarteak ez ohiko batzarra egin zuen atzo. Horrez gain, informatika ikastaroa jami dute martxan. Gaur eta bihar ere izango dira saioak (09:30-11:30) KZ gunean, Fermin Martinez Galbarren eskutik. Bestalde, gogorarazi dute, asteartero puntua ikasteko saioak emango dituztela (18:00-20:00), kultur etxean. Indarkeria sexistaren aurkako bufanda osatzeko proiektuari begira izango da. ■



Ez ohiko batzarra egin zuten atzo.

■ PELOTA

Brontzea eskuratu du Oier Gurutzealde, mundialean

Mexikon jokatu da trinketeko mundiala eta bertan parte hartu du Oier Gurutzealde. Espainiako taldearekin aritu da, beste 3 pelotariarekin, eta brontzea lortu dute, hau da, hirugarren postua. Larunbatean jokatu zuten finalerdia Mexikoren aurka eta galdu egin zuten: 15-9 eta 15-11. Gurutzealde eta Garatea aritu ziren eta bi bikoteek sekulako partidua jokatu zutela adierazi dio Kronikari pelotari astigartarrak: «Giroa ere kristona frontoian». Igandean, beriz, hirugarren postua izan zuten jokoan Kubaren aurka eta irabazi egin zuten: 15-6 eta 15-1. Gurutzealde atsedean eguna izan zuen. Gustora dago lortutako emaitzarekin eta baita bitzako esperientziarekin ere. ■

■ FUTBOLA

Aurreneko hiru puntuak, lortuta

Liga, modu ezinhobean hasi du Mundarrok: garaipena lortu eta bere atea hutsean utzi: 2-0. Partidu hasieran Euskalduna zertxobait nagusi zen, baina berehala partidua parekatu eta 30garren minutuan iritsi zen etxekoen gola. Riosen alboko sake luze bat jaso eta Nogalesek sartu zuen ezkerkada sendo batekin, area kanpotik. Andoaindarek ez zuten atzera egin eta hainbat aukera izan zituzten, baina atsedendira iristear zirela, Yorkisek bigarren gola sartu zuen. Bigarren zatian, atea hutsean mantentzeak zuten garrantziaz jabetuta, Mundaroko jokalariek euren zelaian jokatu zuten, batez ere. Ez zen ezustekorik izan. Egoitz Sayar entrenatzaileak azaldu duenez, «denboraldiko lehenengo 3 puntuak etxean geratu dira. Oso garrantzitsua zen horrelako hasiera izatea, batez ere, talde hain gaztea izanda». Hamaikakoa: Garin, Rios, Manu, Uxer (Arza), Nogales (Miguel), Ivan G., Unai, Borja (Beñat M.), Yorkis, Gartz (Ibai) eta Guti (Ivan L.). ■



EMAITZAK		
Gorengo maila	Mundarro-Euskalduna	2-0
Ohorezko jubenila	Clartzun-Mundarro	2-0
1go jubenila	Trinorpe-Mundarro	1-1
Ohorezko kadetea	Mundarro-Euskalduna	4-0
1go kadetea	Mundarro-Martutene	1-2

■ SASKIBALOA

Galdu, Errotaundiren aurka

Gipuzkoako lehenengo mailako taldeak aurreko asteburuan hasi zuen liga eta galdu egin zuen Errotaundiren aurka: 46-58. ■

MENDILUZE OKINDEGIA, S.L.

Troia Ibilidea, 14 - Pab. 6 - Ergobia
20115 - ASTIGARRAGA
Tel 943 55 15 98
(J) 630 38 79 10
(S) 629 66 69 77

Planne
kafetegia

Kale nagusia 40
Astigarraga
943 55 78 49